

ARGAZKIGINTZAKO ETA ADIMEN ARTIFIZIALEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

"BIZKAIA ZUBIA: 20 URTE MUNDUKO ONDARE IZATEN"

1. Lehiaketaren xedea

Bizkaia zuba UNESCOren munduko ondare izendatu izanaren 20. urteurrena dela-eta, Bizkaia zubiak "Bizkaia zuba: 20 urte munduko ondare izaten" deituriko argazkigintzako eta adimen artifizialeko lehiaketa iragarri du, sormen artistikoa, berrikuntza teknologikoa eta Bizkaia zubiaren kultura-, historia- eta paisaia-balioen hedapena sustatzeko helburuarekin.

Aurkeztutako lanek Bizkaia zuban edo haren ingurunean, historian, ondare-balioan, inpaktu sozialean edo etorkizuneko proiektioan inspiratuta egon beharko dute.

Parte hartzea doakoa da.

2. Parte-hartzaileak

Hemezortzi urtetik gorako pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, nazionalitatea edo bizilekua edozein dela ere.

Ezin izango dute parte hartu ez epaimahaikideek, ez lehiaketaren antolaketan zuzenean parte hartzen duten pertsonak, ez haien lehenengo graduko senideek.

3. Kategoriak

A kategoria: Argazkigintza

Argazki-kamera edo gailu mugikor bidez egindako argazki-lanak.

Edizioaren oinarrizko doikuntzak baino ez dira onartuko, hala nola:

- Esposizioa, kontrastea eta kolorea zuzentzea.
- Argitasuna doitzea.
- Zarata digitala ezabatzea.
- Irudia moztea.

Ez da onartuko adimen artifizialaren bidez sortutako elementurik, ez eta atzemandako errealitatea funtsean aldatzen duen alteraziorik ere.

B kategoria: Irudi digitala eta adimen artifiziala

Adimen artifizial sortzailearen tresnen edo edizio digitaleko prozesu aurreratuen bidez sortutako lanak, osorik edo partzialki.

Onartutakoak:

- Adimen artifizialaren bidez erabat sortutako irudiak.
- Fotomuntaketak.
- Konposizio digitalak.
- Norberaren argazkietan oinarritutako lan hibridoak.
- AA tresnak tartean dituzten sormen-prozesuak.

Parte-hartzaileek adierazi egin beharko dituzte erabilitako tresnak eta deskribapen labur bat egin beharko dute erabilitako sormen prozesuari buruz.

4. Lanen betekizunak

Lanek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Originalak eta argitaragabeak izatea.
- Beste lehiaketa edo sariketa batzuetan sarituak ez izatea.
- Bizkaia zubiarekin eta/edo munduko ondare izatearen inguruko balioekin lotuta egotea.
- JPG edo PNG formatuan aurkeztea.
- Gutxienez 300 ppp-ko bereizmen gomendatua izatea.
- Gutxienez 3.000 pixeleko tamaina edukitzea bere alderik handiengan.

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru (3) lan aurkeztu ahal izango ditu kategoria bakoitzeko.

Antolatzaileek jatorrizko edo bereizmen handieneko fitxategiak eskatu ahal izango dizkiete finalistei edo irabazleei, lanen benetakotasuna egiaztatzeko eta erakusketarako edo argitalpenerako erreprodukzioa errazteko.

Ez da onartuko eduki iraingarriak, diskriminatzaileak, bortitzak edo indarrean dagoen legeriaren aurkakoak biltzen dituen lanik.

5. Lanen aurkezpena

Lanak helbide elektronikoa honetara bidali beharko dira:

promocion@puente-colgante.com

Lan bakoitzari honako informazio hau erantsi beharko zaio:

- Obraren izenburua.
- Zein kategoriatan parte hartuko duen.
- Irudiaren deskribapen laburra.

Gainera, B kategorian (“Irudi digitala eta adimen artifiziala”), nahitaezkoa izango da honako hauek barne hartzea:

- Erabilitako tresna edo tresnak.
- Betetako sormen-prozesuaren azalpen laburra.

Halaber, parte-hartzailearen honako datu hauek agertu beharko dira mezu elektronikoan:

- Izen-abizenak.
- Jaioteguna.
- NAN, AIZ edo pasaporteak.
- Harremanetarako telefonoa.
- Helbide elektronikoa.

6. Parte hartzeko epea

Lanak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 15etik 2026ko uztailaren 17ko 23:59ra arte egongo da zabalik.

Ez da onartuko epe horretatik kanpo jasotako ezein lanik.

7. Epaimahaia

Arlo hauetan ospe handia duten profesionalak osatuko dute epaimahaia:

- Argazkigintza.
- Arteak eta kultura.
- Ikusizko komunikazioa.
- Berrikuntza teknologikoa eta adimen artifiziala.

Epaimahaiaren osaera epaia eman aurretik jakinarazi ahal izango da.

Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira.

8. Balorazio-irizpideak

Argazkigintza kategoria

Lanak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Kalitate teknikoa: % 30
- Konposizioa eta inpaktu bisuala: % 30
- Originaltasuna eta sormena: % 20
- Lehiaketaren gaiari lotuta egotea: % 20

Irudi digitala eta adimen artifiziala kategoria

Lanak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Sormen kontzeptuala: % 35
- Kalitate bisuala eta teknikoa: % 25
- Berrikuntza adimen artifizialaren erabileran: % 20
- Lehiaketako gaiari lotuta egotea: % 20

9. Epaimahaiaren epaia eta sari-banaketa

Epaimahaiaren epaia 2026ko uztailaren 28an argitaratuko da, ekitaldi baten bidez, Bizkaia zubiaren terrazetako batean, eta, ondoren, Bizkaia zubiaren webgune ofizialean, haren sare sozialetan eta erakundeak egoki iritzitako komunikabideetan.

Sari-banaketa uztailaren 28an egingo da ekitaldi publiko batean.

10. Sariak

Argazkigintza kategoria

Lehenengo saria: 800 €

Bigarren saria: 400 €

Hirugarren saria: 200 €

Irudi digitala eta adimen artifiziala kategoria

Lehenengo saria: 800 €

Bigarren saria: 400 €

Hirugarren saria: 200 €

"20 urte munduko ondare izaten" sari berezia

Bizkaia zubia UNESCOren munduko ondare izendatu izanaren 20. urteurrena dela-eta, sari berezi bat emango da, honako diru-zuzkidura hauekin:

UNESCO sari berezia: 300 €

Sari horrek Bizkaia zubiari eta munduko ondare gisa duen aintzatespenari lotutako historia-, kultura-, gizarte- eta sinbolo-balioak ondoen ordezkatzeko dituen lana aintzatetsiko du.

Bi kategorietan aurkeztutako edozein lanari egokitu ahal izango zaio, eta bateragarria izango da sari nagusiekin.

Epaimahaiak bereziki baloratuko du lana gai izatea Bizkaia zubiak industria-ondarearen ikono gisa daukan berezitasuna transmititzeko, hura paisaian integratu den modua eta zeinen garrantzitsu bihurtu den belaunaldiak, lurraldeak eta kulturak lotzeko elementu gisa.

Halaber, epaimahaiak zuzkidura ekonomikorik gabeko ohorezko aipamenak eman ahal izango ditu, aurkeztutako lanen kalitateak hala justifikatzen duenean.

Sariak legez aplikatu beharreko atxikipen fiskalen menpe egongo dira.

11. Lanen erakusketa eta zabalkundea

Antolatzaileek erakusketa fisiko eta/edo birtual bat egin ahal izango dute saritutako lanekin eta hautatutako lan finalistekin.

Halaber, lehiaketarekin edo Bizkaia zubiaren kultura-jarduerekin lotutako argitalpenetan, katalogoetan, sare sozialetan, web orrietan eta sustapen-materialetan erabili ahal izango dituzte.

12. Jabetza intelektuala eta erabilera-eskubideak

Parte-hartzaileek betiere gordeko dute aurkeztutako lanen jabetza intelektuala.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar Bizkaia zubian doan sartzeko baimena ematea kultura-, hezkuntza-, dibulgazio- eta sustapen-helburuekin aurkeztutako lanak erreproduzitzeko, jendaurrean komunikatzeko eta zabaltzeko, baldin eta lanok honako hauekin lotuta badaude:

- Lehiaketa.
- Munduko ondarearen urteurrena.
- Bizkaia zubiaren kultura- eta turismo-jarduera.

Ahal den guztietan, erabilitako obraren egilearen izena azaleratuko dute antolatzaileek.

Parte-hartzaileek bermatu egingo dute aurkeztutako lanen gainean beharrezkoak diren eskubide guztien titularrak direla, eta haiek erabiltzearen ondorioz hirugarrenek egiten duten edozein erreklamaziori erantzungo diote.

13. Irudi-eskubideak

Lanetan pertsona identifikagarriak agertzen direnean, parte-hartzaileek bermatu egingo dute haien irudia atzemateko eta zabaltzeko beharrezkoak diren baimenak dauzkatela.

Erakundeak ez du bere gain hartuko betebeharrak hori ez konpliztearen ondoriozko erantzukizunik.

14. Datu pertsonalen babesa

Parte-hartzaileek emandako datu pertsonalak beren-beregi tratatuko ditu Bizkaia zubiak lehiaketa kudeatzeko, parte-hartzaileekin komunikatzeko, emaitzak zabaltzeko eta deialdiaren ondoriozko legezko betebeharrak konplitzeko.

Interesdunek datuak babestearen arloan indarrean dagoen araudiak aitortutako eskubideak baliatu ahal izango dituzte erakundeari zuzendutako jakinarazpenaren bidez.

15. Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek osorik onartzea dakar.

Antolatzaileek eskubidea edukiko dute oinarriak interpretatzeko, horietan jaso gabeko edozein gai ebazteko eta lehiaketaren garapen egokia bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

